

noaua

**Langabezia-tasa
jaitsi egin zen 2015ean**

**Ostiral honetan,
Ainhoa Intxaurrendietaren
hitzaldia Potxoenean**

**Joxan Artzeren 'unibertsoa'
eta Zumetaren 60etako
lanak, San Telmon ikusgai**

Igande honetan,

Irisasi BTT Hotzak Akabatzen

LASER DIODO IRAUNKORRA

LIGHTSHEER® DIODO LASERRAREKIN

Depilatzeaz nazkatuta baldin bazaude, depilazio iraunkorra lortzeko aukera paregabea eskaintzen dizugu:
(prezioak sesio bakoitzeko)

EMAKUMEETAN:

Hanka osoak 149€ / Hanka erdiak 99€ / Izterrak 132€ / Izter erdiak 102€
Besoak 79€ / Besaurreak 69€ / Kokotsa + ezpaina 39€
hanka osoak + Ingleak (bikini) 199€
hanka osoak + besapeak 179€
Ingleak (bikini) 50€ (Pubisa edo Brasildarra) 60€ Ingleak (osoa) 75€
hanka erdiak + Ingleak (bikini) 149€ / hankaerdiak + besapeak 129€

GIZONETAN:

Sorbalda 99€
Sorbalda + besaburuak 129€
Sabelaldea + toraxa 153€
Hanka osoak 194€ / Hanka erdiak 122€
Besoak 99€ / Besaurreak 89€
Ipurmasailak 79€

Nagusia 8, USURBIL 943 36 36 41 (egun guztia irekia)

Kalitatezko produktuekin estilismoa eta estetika lantzen ditugu



INTZA
ILEA PAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA


%100 bertako sagarra

*Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!*



Santuenea, USURBIL

Erreserbak: 943 36 50 31



SAGARDOTEGIA

Albiste iruditzen

Puntapax kalera zabaldu da bidegorri sarea

Udalerri barruko bizikleta bideen sarea osatzen ari da Usurbilgo Udala. Bordatxo ondoko errotondatik Puntapax alderako bide bazterretan egokitzapen lanak egiten aritu dira azken asteotan.

Bizikleta Mugikortasun Sistemaren Integratze-ko Proposamenarekin bat dator Puntapax errepideko egokitzapena.

2014an Ikastola-Bordatxoko errotonda arteko zatia egokitu zen. Eta egunotan, Bordatxoko errotondatik Puntapax kalera abiatzen den zatia moldatu da.

Foru Aldundiaren laguntzarik gabe

Jone Urdanpilleta udal zinegotziak aditzera eman digunez, lehen zatia egokitzeko Foru Aldundiaren laguntza izan zuten. Baina oraingo honetan laguntza ukatu egin zaio Usurbili, eta Udalak bere errekurtsio propioekin osatu behar izan du Puntapaxeko bidegorria.



Puntapaxeko kalea egokitu dute. Bizikleta Planaren baitan, zati gehiago egokituko dituzte aurrerago.

Europako beste toki askotan bezalaxe, garrorako espazioa konpartitzea du xede Bizikleta Planak. Helburuetako bat bada ibilgailuen

abiadura moteltzea. Erne ibiliz gero, eta abiadura egokian joanez gero, ez luke arazorik egon behar.

Laburrean

Gure Pakearen Batzar Nagusia

Ostiral honetarako deitu du Gure Pakea Elkarrekin urteroko ohiko batzar nagusia. Deialdi bakarra egin dute; urtarrilaren 29rako, arratsaldeko 16:30ean, Gure Pakea Elkarrekin Artzabalen duen egoitzako ekitaldi aretoan.

Otsailaren 27an, 1956koen kinto afaria

Antxeta jatetxean bilduko dira otsailaren 27an. Afaritarako izen emateko epea zabalik egongo da, otsailaren 22ra arte. Izen emateko deitu bi telefono zenbakiotako batera: 656 308 212 (Iñaki) edo 943 362 555 (Mari Karmen).

Azken ostiraleko elkarretaratzea

Euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko hileroko mobilizazioa, ostiral honetan, urtarrilaren 29an. Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deituriko hitzordua, iluntzeko 20:00etan hasita, Mikel Laboa plazan.

noqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkarte@noqua.eus ||| www.noqua.eus

Jendaurrereko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea: Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda, publikitatea@noqua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noqua.eus: Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola, Ekhi Arrieta.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiete, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



Aritz Gorriti

Parekidetasunerantz

Lerrook idazterakoan, irakurri berria nuen hainbat hedabideetako edizio digitaletan Gasteizen gertatu berri zena. Beste behin gertaturikoa. Gizonezko batek emakume bat eraso eta haren urte eta erdiko haurra leihotik behera bota zuen. Ikaragarria azkeneko kasu hau.

Hobeto esanda, ustez azkenekoa den kasua, egunerokoan askoz gehiago baitira lau hormen artean edota kalean gertatu eta isilpean geratzen diren maila ezberdinetako erasoak. Argi denez, nik, zuk, hark eta gu guztiok osatzen dugun jendarte matxistan gertatzen ari dira halakoak.

Badakigu gertatzen direla, "baina gu ez garela ha-

lakoak" ezta? Izatekotan hura, edo haiek izango dira tankera horretako albisteetako protagonistak. Zalantza izpirik gabe, parekidetasunaren aldeko diskurtsoa ondo ikasia dugu, baina argi denez, ez dugu benetan barneratu, integratu, geure eguneroko jarrera edota jokabideetan, eragile feministek, Usurbilgo Matrakek kasu, hainbatetan gogorarazi ohi dituzten moduan. Emakumeentzat injustua izatez gain, krudelegia izaten segitzen duen ispiluaren aurrean jartzen gaitu hain zuzen, eguneroko errealtateak. Batez ere gizonok.

Gizonezkoek hain zuzen, zer dute/dugu esateko, egiteko honen guztiaren aurrean? Ez baita ahaztu behar, emakumeen aurkako erasoetan, era-

sotzaileak gizonezko aurpegi duela. Eta ez gizonezko bakarrarena, oraindik ere gure artean indar handiz bizirik segitzen duen gizontasun eredu batena baizik. Baina zer nolako ereduaz ari gara? Zer da gizon izatea? Gizon izateko modu bakarra al dago?

Gai honen inguruko lankeetan dihardute, jendarte justuago eta parekideago bat eraiki nahian, urteotan Euskal Herrian barrena sortzen, osatzen joan diren gizon taldeek. Usurbildik gertuen, Zarautzen edota Hernanin. Bilguneok, hausnarketarako guneak dira; epaitua izateko inongo "arrikurik" gabe, gizonak gizonekin hitz egin, elkarri entzun, eta emozioak partekatzea. Gizon bakoitzak taldea aberasten

du. Eta gizon taldeak talde kide bakoitza. Barrua askatzeke ere balio dute. Ikusezina izan arren, harriz ondo betea izan eta hustu beharra dugun motxila astunegia daramagu eta bizkar gainean.

Gizon bezala, egunerokoan inguratzen gaituztenekin harremantzeko dugun moduez, esparru ezberdinetan jokatzeko ditugun "rol" edo paperez hausnartzeko tokia ere bada. Guztiaren gainetik, konfiantzazko guneak dira, egunerokoak hainbeste urruntzen dituen gizonak elkar gerturatzeko balio dutenak. Abiapuntu interesgarria markatzen ari dira. Lanketarako bide luzea dute aurretik, baina norabidea oso argi.

Imanol Ubeda | **Aritz Gorriti** | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue | Ilazki Gaintza | Idoia Torregerai | Luis Aranalde

berria
fundazioa

BERRIA HEDABIDEEN FUNDAZIOA
BERRIA beka

Euskara, hedabideak eta teknologia berriak kontuan hartuta proiektu berriak sortu eta martxan jartzeko.

Hedabide, enpresa edo bestelako proiektu berriak sortzeko.

Proiektuak 2016ko apirilaren 1era bitartean aurkeztu ahal izango dira.

Bekaren irabazleak zer jasoko duen trukean:

- 12.000 euro proiektua martxan jartzeko.
- BERRIA Hedabideen Fundazioak eta BERRIA Taldeak dituzten baliabideak erabiltzeko aukera.
- Landutako proiektua martxan jartzeko laguntza, beharren arabera zehaztuko dena.
- Proiektuaren helburua enpresa bat sortzea bada, egileak horretarako Laboral Kutxaren Gaztenpresa Fundazioaren laguntza izango du, nahi izanez gero.

Informazio gehiago eta bekaren oinarriak, webgune honetan: berria.eus/fundazioa

Balantze gazi-goza

LANGABEZIA JAITSI EGIN ZEN 2015EAN, BAINA EMAKUMEZKOAK IZAN ZIREN KALTETUENAK

Langabeziak beherantz egin zuen iaz, baina gizonetako eta emakumezkoen arteko desorekak edota aldi baterako kontratazioak ez ziren murriztu. 344 langabeteekin abiatu genuen 2015. urtea, eta amaitu, lanik gabeko 310 herritarrekin. 34 langabetu gutxiago genituen beraz, urtea agurtzerakoan. Neguan erregistratu ziren datu ilunenak; otsaila izan zen langabetu gehien erregistratu ziren hilabetea, 347 gutzira. Gutxien, uztailen; 306 gutzira. Baina abuztuan, 322 ziren. Udako bigarren zatian nabarmen igo zen berriz langabetu kopurua. Udazkenean beherantz segi zuen.

Usurbilgo datuen bilakaera bera izan dute Buruntzaldekoek eta baita Gipuzkoa mailakoek ere.

Emakumezko langabetu gehiago, gizonetako baino 2015ean irauli ez den errealita-



2015eko udan, gizonetako kontratazioak emakumezkoena bikoiztu zuen.

INGURUKO HERRIEN PARE

“Usurbilgo datuen bilakaera bera izan dute inguruko herriek. Buruntzaldean, 2015eko urtarrilean baino 616 langabetu gutxiago zeuden abenduan eta Gipuzkoan, 6.219 gutxiago”

tea. Langabetu kopuruak gora eta behera egin zuen iaz, baina hilerro erregistratu zen datu bera; Usurbilen ere, gizonetako baino emakumezko langabetu gehiago ditugu. Salbuespen bakarra, iraila izan zen; 157 gizonetako eta 158 emakumezko langabetu zenbatu ziren udalderri honetan. Gainerakoan, aldea nabarmenagoa izan da; tarte handiena, 26 langilekoa, ekainean erregistratu zen. Orduko hartan,

144 langabetu gizonetako eta 170 langabetu emakumezko zenbatu zizuten Usurbilen.

Gizonetako kontratazioak emakumezkoena bikoiztu du

Emakumezkoen langabetu kopuruak, gizonetakoena gainditzen du Usurbilen. Alderantzikoa gertatzen da ordea, kontratazioari dagokionean; gizonetako gehiago kontratatu zizuten iaz lanerako, emakumezkoak baino. Kasu honetan bai, aldea ikaragarria da. 2015eko udan, uztailan eta abuztuan esaterako, gizonetako kontratazioak emakumezkoena bikoiztu zuen. Gainerako hilabeteetan aldea txikiagoa izan arren, errealitate bera islatzen dute datuek.

Iaz egin ziren kontratu ia denak aldi baterakoak izan ziren

Kontratazioari lotuta aldatu ez den beste ezaugarri bat; kontratu mota. Iazko kontratu ia denak, aldi baterako sinatu ziren.

Langabeziaren bilakaera 2015ean

	Usurbil	Buruntzaldea	Gipuzkoa
Urtarrila	344	4.808	47.554
Otsaila	347	4.760	47.038
Martxoa	343	4.732	46.844
Apirila	331	4.652	45.788
Maiatza	325	4.533	44.425
Ekaina	314	4.395	43.150
Uztaila	306	4.321	42.247
Abuztua	322	4.408	42.840
Iraila	315	4.391	42.772
Urria	309	4.371	42.478
Azaroa	313	4.211	41.750
Abendua	310	4.192	41.335

Usurbilgo gizonetako eta emakumezko langabezia-tasa

	Gutzira	Gizonetako	Emakumezkoak
Urtarrila	344	165	179
Otsaila	347	167	180
Martxoa	343	165	178
Apirila	331	156	175
Maiatza	325	155	170
Ekaina	314	144	170
Uztaila	306	141	165
Abuztua	322	157	165
Iraila	315	157	158
Urria	309	147	162
Azaroa	313	152	161
Abendua	310	143	167

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

USURBIL AUTOAK
·TAILERRA ·KARROZERIA ·KOTXEEN SALMENTA

Ford

SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!

zerbitzu ofiziala
Zumartegi industrialdea

943 36 10 79

Larunbat honetan, Energia Azoka

Ursulbilgo Udalak, Lanbide Eskolarekin, Zubigune Fundazioarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, Energiaren Azoka antolatu du larunbaterako, urtarrilaren 30erako, 10:00-14:00 artean, Mikel Laboa plazan. Eguraldi txarra egingo balu, frontoian ospatuko da. Energia berriztagarrien eta eraginkortasun energetikoari buruzkoa izango den azokak, informazioa jaso eta kontzientziatzeko gunea izan nahi du.

"Energia berriztagarriak eta eraginkortasun energetikoa gai hartuta eduki desberdineko postuak egongo dira. Eraginkortasun energetikoaren kultura eta energia garbieraren erabilera hedatzeko asmoz bertan hainbat gailu (berotze sistemak, kotxe elektrikoa, elektrizitate kontsumo neurgailuak, isolatzaile termikoak, bizikleta elektrikoak etab..) erakusgai egon-



Lanbide Eskolan eraikitzen ari diren moduluka aurrefabrikaturiko eraikina aurrera doa. "Eraikin eraginkorren eta instalakuntza berriztaileen erreferente hezigarrian bilakatuko da", Eskolatik jakinarazi digutenez.

go dira. Era berean, etxeko faktura ulertzeko azalpenak ere emango dira", Ursulbilgo Udalak berri eman duenez.

Lanbide Eskolak landutako teknologia kalera aterako du azoka honen bidez. Herritarren eskuragarri jarri nahi ditu, garatu eta muntatu dituen sistemak. Lanbide Eskolako irakasle eta ikasleak egongo dira postuetan.

Haurrentzako gune hezigarria

Energia aurreztera bideraturiko sistemak erakusgai jarriko dituzte, eta adituen eskutik behar beste argibide jasotzeko aukera izango dute heldu nahiz haurrek. Txikiei zuzenduriko txoko parte hartzailea ere izango baita; margotuz, euren alderdi sortzailea landu ahalko dute. Energia berrizta-

garrien eta eraginkortasun energetikoei buruzko ereduaren marrazki bat hautatu eta koloreztatze aukeraz izango dute.

Marrazkiok ikusgai jarriko dituzte gero eta azoka amaieran, 13:00ak aldera, energia bidezko jostailuen zozketa egingo da. Lanbide Eskolatik adierazi dutenez, "jakitun gara zer nolako garrantzia duen energia kontsumoen inguruko ohiturak irakasteak. Gurea baino kontzientziatuagoa egongo den belaunaldia behar dugu". Horretarako belaunaldi berria heztea ezinbestekotzat jotzen dute.

Azokako osagaiak

Nabarmendu beharreko beste hitzordu interesgarri bat; hilero ordaindu behar izaten ditugun fakturen ingurukoa. Larunbat eguerdiko 12:00etan, Sutegiko erakustaretoan etxeko kontsumoen fakturaren inguruko azalpenak eskainiko dira hitzaldi batean.

Energia berriztagarriak, etxean

Energia Azokan ikusi ahalko duguna, zenbait herritarrek etxean gauzatu dute jada. Bizilekua energia berriztagarriez hornitzeko apustua egin baitu batek baino gehiagok. Hondakinak erraustu nahi dituzten gunetik gertu, Zubietako hainbat lagunek esaterako, etxeko ur beroa edo argindarra, energia berriztagarrietatik eskuratzen dute.

Unai Agirre:

"Emisio neutroak dira"

Berridi bidean kokatua dagoen etxebizitzetako batean, lau eguzki panel jarri dituzte, ur depositu handi bat eta egurra berotzeko galdara. Urteko hilabete askotan panelok bakarrik, zoria, berogailuak eta dutxatzeko nahiz garbiketarako ur bero nahikoa izaten dute. Negu partean, eguzki orduak murriztu eta hotz handiagoa egin ohi duen garaian, egurra erretzeko galdarak panelak egiten duen lana osatu eta etxea erretzeak laguntzen die. Egurra erretzeak karbono CO2a sortzen du bai, baina "emisio



Zubietan, Unai Agirreraren etxean, ura berotzeko argindarra edo gasaren beharrik ez dute. Lau eguzki panel jarri dituzte, ur depositu handi bat eta egurra berotzeko galdara.

neutroak dira", argitu digu Unai Agirre etxe jabeak. Elektrizitatea gainera Goiener kooperatibarekin kontratatua dute. Beste enpresa ezagunen prezio berean, baina berezitasun batekin; argindarra energia berriztagarriekin eskuraturikoa da.

Sistema berria azaroan jarri zuten martxan, "azarotik hona dutxatzeko eta garbiketarako behar den ur beroa baino gehiago sortu du eguzki panelak negu betean". Ura berotzeko argindarra edo gasaren beharrik ez dute.

Energia garbia izateaz gain, luzera begira "merkeagoa da"

Ezta Zugasti baserrian ere. Bi hilabete daramate eguzki panelekin eta egurra erretzeko galdara batekin, baserri osorako ura berotzen. "Egur karga batekin egun bat edo bi irauhan ahal ditugu. Garai bateko "ekonomika" edo tximinia bateko egur karga batekin, ez genuke etxea egun erdiz ere berotuko", adierazi digute.

Tokia izan eta norberak dituen baliabideen arabera, energia berriztagarrien aldeko apustua egitera animatzen dute. Hasieran bai,



Zugasti baserrian ere, bi hilabete daramate eguzki panelekin eta egurra erretzeko galdara batekin, baserri osorako ura berotzen.

egia da, inbertsio bat egin beharra dagoela, baina argi denez, onura begi bistakoa da, eta berehalakoa. Denborarekin inbertsioa amortizatzen da eta ekonomikoki ur beroa izateko ordaindu beharrekoa nabarmen merkeagoa da. Eta garrantzitsuena, ingurumena kaltetzen ez duen energia garbia ari gara. "Seguru aski denek ezingo dute ehuneko ehun CO2 emisiorik gabeko etxe bat izan", aipatu digute, baina bakoitzak ahal duen neurrian emandako pauso txikiak, handi bilakatzen dira begi bistakoa denez.

Ainhoa Intxaurrendieta, GHKko lehendakari ohia:

“Legegintzaldi honetan guztia amaiturik utzi nahi dute, lotua, ondo lotua”

Erreustegia Erabakia taldea sinadura biltzen aritu da azkenaldian. Ostiral honetarako, hitzaldi bat antolatu dute Potxoenean. Ainhoa Intxaurrendietak eskainiko du eta galdera hau izango du abiapuntu: “Errauskailua Gipuzkoan. Ez al genuen ba, gelditu?”. Aurretik, NOAUA!ren galdera hauek erantzuteko denbora hartu du GHKko lehendakari ohiak.

NOAUA! Memorandum modukoa egiteko asmoa duzu edo azkenaldian eman diren albisteak izango al dituzu hizpide?

Ainhoa Intxaurrendieta. Errepasso orokor bat emango diot geldiaraztea lortu genuen errauste plantaren ondorengo auziei, epaitegietan ditugun aferak, zein egoeratan dagoen gaia. Gaur egun planteatzen ari diren errauste plantaren inguruan ere arituko naiz noski, proiektu ezberdinez ari bagara ere, sustrai edo erro berdina duen arazoaz ari baikara.

N. Urte hasieran hauxe irakurri genuen Argian: “Bilboko Zabalgarbi errauskailuak erre zuen %85 birziklagarria zen eta %1,6 arriskutsua”. Aurreko astean, honako goiburua DVn: “La Diputación acelerará la incineradora ante el futuro incierto del único vertedero”. GHKko lehendakari izan zinen aldetik, zer nolako sentimenduak eragiten dizkizu bi goiburuen arteko kontrasteak?

A. I. Beti esan duguna konfirma-



Ostiral honetan hitzaldia eskainiko du Potxoenean (irudia: Urola Kostako Hitzza).

ERRAUSTE PLANTAZ

“Guzti honen atzetik interes ekonomikoak daude. Herritarron osasuna kaltetzea herritarron diruarekin ordaindutako azpiegitura batekin erokeria hutsa da, ezin dugu onartu”

tu besterik ez du egiten honek. Errauste planta batek birziklagarriak diren materialak “behar” ditu erretzeko, alde batetik errefusa soilik erre beharko balu oso oso tona gutxi izango lituzke eta bestetik juxtu birziklagarriak direnak (papera, kartoia eta plastikoak), erregai onenak direlako. Errauste planta bat diseinatzen dutenean, oso argi dute birziklagarriak direnak erre behar dituztela eta honek tristetu egiten nau. Agintean dau-

denek herritarron interesak defendatu beharko lituzkete, ez hauen interesen kontra egin batek daki zeren edo zeinen interesen defentsan aritzeko.

DVn agertzen den moduan, zabortegeien gaitasuna beti izan dute aitzaki errauste planta bat justifikatzeko. Azken hamarkada honetan, behin eta berriz esan digute zabortegeiek gainezka egingo dutela, ‘kolmatatuta’ zeudela. Sinestrazi nahi izan diguten hori ordea ez da egia. Zabortegeietan bazegoen beste hamarkada luze batez isurtzen jarraitzeko aukera. Baina oso argi dut, zabortegeien ereduarekin ere amaitu behar dugula. Ezin ditugu birziklagarri eta konpostagarriak direnak erre, ez eta zabortegei batean isuri.

N. Zabortegeiekin jarraituz, Imanol Lasa Gipuzkoako Foru Aldundiko bozeramaleak dio errauste plantaren eraikuntza azkartu egin

behar dela. Irudikatzen duten bezain urgentea al da zabortegeien inguruko afera?

A. I. Ez, lehen esan dudan moduan, zabortegeietan bazegoen, eta beraz badago urte luzez isurtzen jarraitzeko gaitasuna. Errauste planta behar beharrezkoa dela sinestazteko erabili duten gezur bat izan da. Hain urgentea bada beraientzat errauste planta eraikitzea ez da zabortegeien gaitasunagatik. Legegintzaldi honetan guztia amaitua utzi nahi dute, lotua, ondo lotua, ez dute aukera txiki bat ere utzi nahi, 2011koa errepikatu eta berriro ere errauste planta gelditzeko aukera izatea.

Lehen ere aipatu dut zabortegeien ereduarekin ere amaitu behar dela. Ez da onargarria birziklagarri eta konpostagarriak direnak zabortegeietan isurtzea inguru guztia kutsatuz. Eredu honen soluzioa ordea, ez da askoz kutsakorragoa eta askoz garestiagoa den azpiegitura bat egitea, errauste planta bat egitea. Guzti honen atzetik interes ekonomikoak daude. Herritarron Osasuna kaltetzea herritarron diruarekin ordaindutako azpiegitura batekin erokeria hutsa da, ezin dugu onartu.

Ainhoa Intxaurrendietaren hitzaldia Potxoenean

■ Urtarrilaren 29an ostirala.

■ Potxoenean, 18:30ean.

■ Gaia: “Errauskailua Gipuzkoan. Ez al genuen, ba, gelditu?”

■ Antolatzailea: Erraustegia Erabakia.

“Herri mugimenduaren indarra behin eta berriro ikusi dugu izugarria dela”

Lasarte-Oriako Udala errauste planta Zubietan eraikitzearen aurka agertu zen duela hilabete batzuk. Urtarrilaren 16an “Zubietan SOS” manifestua aurkeztu zen. Egun berean, Ipar Haizea Errausketaren Aurkako Plataforma osatu zen Andoainean. Ainhoa Intxaurrendietaren esanetan, “herri mugimenduaren

indarra behin eta berriro ikusi dugu izugarria dela. Euskal Herrian oso ondo dakigu zer den botere ekonomikoek agintzen duten ereduaren kontra borroka egitea, eta hau ere borroka horren beste lagin bat besterik ez da. Herri mugimenduak, herri mailako instituzioak, osasunaren

defentsan lan egiten dutenek, guztiok egin behar dugu indar norantza berdinean”.

Lasarte-Oriako Udalaren erabakiaren harira, “argi ikusi dugu Lasarteko udalak onartu zituen mozioengatik, herriak, herritarrok, ez dugula horrelako munstro bat gure etxe ondoan nahi”, adiera-

zi digu Intxaurrendietak. “Ez da onargarria ordea, gure etxe ondo-rako nahi ez duguna, besteen etxe ondorako nahi izatea. Guztion indarrak batuz, eskutik heldu eta norantza berdinean jarriz gero, herri honek duen gaitasuna berriro ere errauste planta ez egiteko giltza izango da”.

Doako laguntza zerbitzua, 4G sareak eragin ditzakeen arazoak konpontzeko

4G teknologia berria, telefono mugikorretan orain. Aldaketak hedadura handieneko estaldura hobereana eskainiko du. Aurrerapen handia suposatuko du; besteak beste, Interneterako konexioaren abiada 150 Mbps-raino azkartzea ADSL-arena gaindituz. Bideoak esaterako, azkarrago igo edo deskargatu ahalko dira. Eta estaldura hobetuko da eraikin barruetan, udalerrri txikietan eta landa eremuan. 4G teknologia martxan dute dagoeneko Europako hainbat herrialdeetan.



Telefono mugikorrek estazioetatik gertuen dauden eraikinetan Lurreko Telebista Digitalaren seinalean arazoak sor daitezke. Argibideak eman eta konponbideak proposatzeko abiarazi dute 'Llega800' kanpaina.

Lehen, Lurreko Telebista Digitalak (LTD) baliatzen zuen 800 MHz banda baliatuko du 4G-ak aurrerantzean. LTD-ak erabiltzen duenaren albokoa. Horrek zenbait etxebizitzetako Lurreko Telebista Digitalaren (LTD) seinalean arazoak eragin ditzake. Bereziki, telefono mugikorrek estazioetatik gertuen dauden eraikinetan.

Telebista ondo ikusteko arazorik baldin baduzue, kasuotarako "Llega800" doako zerbitzua jarri du martxan, Espainiako Gobernu

"LLEGA800" KANPAINA

"4G sarearekin arazorik izatekotan, antenan filtro bat jarri beharko da. Hori litzateke egin beharreko aldaketa bakarra"

Industria, Energia eta Turismo Ministerioak. Zerbitzu honen bidez, 4G sareak eragin ditzakeen arazoaren gaineko informazioa doan jaso ahalko duzue. Eta arazo teknikoak

ere doan konponduko dituzue. Arazorik izatekotan, antenan filtro bat jartzea baino ez litzateke egin beharreko aldaketa bakarra.

Argibideetarako bideak

Telebistako seinalea gaizki antzean jasotzeko arrisku gehien izan ditzaketen etxeetan, eskuorri bat banatuko da. Baina aipaturikoa, bideetatik jaso dezakezue zerbitzu honen inguruko argibide gehiago, doan: 900 833 999 telefono zenbakian eta Interneten: llega800.es

Ikastetxeetan

matrikulatzeko garaia

Matrikulazio epea astelohenera zabaldu zuten, otsailaren 5era arte. Hemen dituzue herriko ikastetxeekin hartuemanetan jartzeko dituzuen bideak:

■ Udarregi Ikastola:

943 36 12 16

Gernika ibilbidea

udarregi.eus

■ Aginagako Eskola:

Erriberako Kalea 7

943 372 044

012261aa@hezkuntza.net

aginaga.eskolatxikiak.org

■ Zubietako Eskola:

943 372 931

012219aa@hezkuntza.net

zubieta@eskolatxikiak.org

zubieta.eskolatxikiak.org

Argia Sariak

Ostiral arratsaldean banatuko dituzte, Atxega Jauregian. Argiako lan taldeak aukeratzeko dituzte sariak, adituen eta Argia komunitatea osatzen dutenen laguntzarekin. Ekitaldia zuzenean eskainiko dute 16:00etatik aurrera, streaming bidez, argia.eus webgunean.

Herritar Txartelaren aukeraketan, "partehartzea bikaina izan da"

2015eko azken albistea izan genuen; Usurbilgo Herritar Txartel berria diseinatzeko Hurbilago Elkarteak eta Usurbilgo Udalak antolatutako diseinu lehiaketako irabazleak nortzuk ziren ezagutzera eman zuten, abenduaren 31ko San Silvestre Herri Lasterketa amaieran. Maialen Garagarza eta Joseba Larratxe herri-

arren "Gertu" izeneko diseinuak irabazi zuen txapelketa. 500 euroko saria jaso zuten.

18 lan aurkeztu ziren, udaberri honetan esku artean izango dugun txartel berriaren irudia hautatzeko deitua zegoen lehiara. Antolatzailen aldetik, "gure esker ona adierazi nahi diegu lehiaketa honetan parte hartutako guztiei".

Usurbilgo Udaleko ordezkari batek, Hurbilago Elkarteko bi kideek, eta diseinu edo komunikazio munduan aritzen diren beste bi lagunek osaturiko epaimahaiak 18 lanotatik 3 hautatu zituen. Eta gero, herritarrek 3 lan hauetako baten alde bozkatzeko aukera izan zuten, abenduko lehen hamabosaldian.

501 boto jaso ziren

"Herritarren parte-hartzea benetan bikaina izan da eta guztira 501 boto jaso ditugu", antolatzailerek berri eman dutenez. Honatx bozketaren emaitzak:

■ A txartela: 232 bozka (bozken %46).

■ B txartela: 218 bozka, (%44).

■ C txartela: 51 bozka, (%10).

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Partehartzea

bazkariak EGUNERO
afariak. asteazkenetik larunbatera

943 362725 · 688 690 361

Otar-Goxo

Elkargaiak

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

INAUTERIAK 2016

OSTIRALEAN, OTSAILAK 5:
18:30 ORBELDI DANTZA TALDEKOEN EMANALDIA
LARUNBATEAN, OTSAILAK 6
12.30 ERRALDOIEN KALEJIRA DULTZAINEROEKIN
16:00 GAZTELEKUAN KARAOKE FESTA
17:00 BURRUNBAZALE TXARANGAREKIN KALEJIRA
19:00 ETA GAUEAN DJ VAN FRONTOIAN

OTSAILAK 6, USURBILEN
LANBIDEAK

noaua

BAZKIDEEN TXOKOA

otsailaren 5ean Zozketatuko dugu:

**IRUIN
SAGAROTEGIAN**

2 LAGUNENTZAKO
afari edo bazkaria

NOAUAREKIN
TXOTXI!

noaua! euskararen aterpe

noaua

Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera. 943 360 321 / eukarte@noaua.eus

Santa Ageda eskea eta Inauteriak, aurten dena batera

Neguko ospakizunak denak batera datoz oraingoan: Santa Ageda bezpera inauteri giroan, eta mozerro festa, ohi baino ekitaldi gehiagorekin. Asteburu bete ospakizun otsaila hasieran.

Udarregin, Inauteri gosez

“Inauteria Usurbilen”. Hala izena du Udarregi Ikastola otsailaren 5erako prestatzen ari den ikuskizunak. “Mundu osoan zabaldu omen da Euskal Herriko herri txiki batean Inauteri ospakizun bikain bat antolatzen dela. Mezua Pinpilinpauxek zabaldu dute, Kanadako pinpilinpauxen ahotsa Finlandiatik entzun zuten, Finlandiako pinpilinpauxen ahotsak Australiatik... eta Errusiatik errusiarrak, Txinatik txinatarrak, munduko zirkoetatik magoak beren untxiek, Hawaiitik hawaiarrak eta surfistak etorriko zaizkigu gure herrira. Zein da herri hori? USURBIL! Etorri nahi duenarentzat izango da beti Hurbil!

Herri txiki honetako biztanle batzuek ere oso modan dagoen whatsapp martxan jarri eta elkarri animatuz, hortxe



Asteburu bete ospakizun izango da hurrena.

BI OSPAKIZUN JARRAIAN

“Udarregikoak Santa Ageda eskean aterako dira otsailaren 4an osteguna, eta biharamunean mozerro desfilean hartuko dute parte”

azalduko zaizkigu gure Anttoni, Joxepa, Manoli, Pantxika, Joxepiña eta kuadrilla. Bejondeizuela! Eta notizia erabat zabalduz, Dysneyko pertsonaiak ere, hegazkina lepo beteta, lurr hartuko dute gure herri txiki honetan”, aurreratu digutenez.

Otsailak 4, osteguna

■ Goizean, Aginagatik barrena koplak abesten irtengo dira Eskola Txikikoak.

■ 15:00 Santa Ageda bezperako eskean irtengo dira Udarregi Ikastolako ikasle eta irakasleak.

■ 16:10 aldera, eskearen amaierako ekitaldia frontoian.

Otsailak 5, ostirala

■ 10:15 Udarregi Ikastolako LHko ikasleen mozerro desfilea, Kaxkoan barrena.

■ 11:15 Udarregi Ikastolako ikasleen ikuskizuna Oiarde Kiroldegian: “Inauteriak Usurbilen”. Sarrera mugatua, ikasleen

sendientzat.

■ Egunean zehar, Aginagako Eskola Txikian, sukaldariz mozerrotu eta gai honi loturiko abesti eta jolasak egingo dituzte.

■ 15:45 aldera, inauteri festa Zubietako Eskolan. Ondoren, Guraso Elkarteak banaturiko askaria.

■ 18:30 Orbeldi Dantza Taldearen kalejira Kaxkoan barrena, Oiarde Kiroldegitik abiatuta.

■ 19:30 Orbeldi Dantza Taldearen saioa Mikel Laboa plazan. Eguraldi txarra egiten badu, frontoian. Dantza taldetik, ekimenok “ikustera gonbidatzen zaituztegu!”. Luzaideko inauterietako dantzen erakustaldia egin asmo dute.

Otsailak 6, larunbata

■ 12:30 Udaletxetik abiatuta, Lauburu Usurbilgo Erraldoi eta Buruhandien Konpartsaren kalejira, dultzaineroek lagunduta.

■ 16:00 Karaoke Festa Gaztelekuan. Mozerrotuta etorri!

■ 17:00 Frontoitik abiatuta, Burrunbazale txarangarekin kalejira, herriko kaleetan barrena.

■ 19:00-21:00 DJ VAN frontoian.

■ 23:00 DJ VAN frontoian. Antolatzailea: NOAUA! KE.

Danborrada, iruditan



Agerialdeko patioan aritu ziren Udarregiko ikasleak.



Eskolatik plazara irten ziren Zubietako ikasleak.

Dj Van: “Denetariko eta denontzako musika izango dugu”

Ohi baino Inauteri Festa luzeagoa eta musikaz blai datorkigu otsailaren 6an. Mozorroen desfile eguna borobiltzeko, aurtan, Dj Van usurbildarra izango dugu frontoian. Emanaldi bana eskainiko du afalurretik eta gauean, adin tarte guztietako herritarrentzat. Mozorrotuta, inauteriak dantza batean ospatzera gonbidatzen gaitu Ivan Santxok lerrootan.

Zein da dj baten lan eremua?

Ivan Santxo: Dj mota asko dago; bere musika jartzen aritzen diren profesionalak daude batetik. Herriko dj-ak deitzen ditudanak daude bestalde; mota askotako musikarekin jendeak ondo pasazteko helburua izaten dutenak. Horretan aritzen naiz.

Zeintzuk izan ziren eman zenituen lehen pausoak, dj gisa aritzeko?

I. S. Musika betidanik asko gustatu izan zait. Etxean musika entzuten nuen, irradian beti musika. Azkenean zaletasun moduan hartu nuen. Mahai txikitxo bat erosi nuen niretzat. Gerora, Kalezarko jaietan lehen saioa eskaintzeko aukera eman zidaten. Ondo pasa genuen. Eta hortik aurrera, pixkanaka joan izan gara emanaldi gehiagotara.

Auzoetako jaietan ere aritu izan zara ezta?

I. S. Kalezarko jaietan urte pare bat, Santueneakoetan beste urte pare bat. Honez gain, karaokeak egiten ditugu, haurrei zuzenduriko emanaldiak eskaintzen ditugu...

Zein dira herritarren kanta go-goak?

I. S. Herrian rock-a asko gustatzen zaie, urteko musika baita



Dj Van-ek alaituko du Inauteri Jaia.

IVAN SANTXO

“Kalezarko jaietan lehen saioa eskaintzeko aukera eman zidaten. Ondo pasa genuen. Eta hortik aurrera, pixkanaka joan izan gara emanaldi gehiagotara”

gauetan, dantzatzeko. Dantza egiteko musika jartzen baduzu, herri honetan dantza egiten da.

Emanaldia prestatu arren, inprobisatzea tokatuko zaizu?

I. S. Ikusi behar duzu ze jende mota duzun, gazteak edo helduak diren, ze musika gustatuko litzaiokeen entzutea, eta ze momentua den. Kontuan izan behar da, jendea ondoen pasatzen ari denean giroa nola mantendu maila horretan eta giroa gainbeheran badoa, nola ahalegindu berriz indartzen.

Afizioa duzu gaurkoz. Bateragarria zaizu eguneroko bizimodurakin?

I. S. Bai. Egunero 8 ordu lan egiten dut, eta hau zaletasun bezala dut. Lana astegunetan, eta dj saioak asteburu arratsalde edo gau parteetan izaten dira. Moldatzen gara.

Afizioa ofizio bihurtzeko asmorik bai?

I. S. Zaletasun gisa ondo doa momentuz. Hala ondo goaz.

Uda partean izango dituzu eskaera gehiago?

I. S. Eskaera gehienak uda partean eta neguan. Neguan karaokea, musika jartzen dugu, girotzeko puzgarriak... Duela gutxi Bergaran, Mendaron egon ginen. Udan festetan aritzen gara gehiago.

Dj batek zer tresneria behar du?

I. S. Mahaitxo bat, ordenagailua edo musika erreproduzitzaila behar da, nahasketa mahai bat. Musika, argia eta kea izatea ere

eskertzen da. Inauteri Festan hala izango dugu. Saioak ikusizun ukitua izango du.

“Jendea dantza egitera hurbildu dadila”

NOAUA! Inauteriei begira zer ideia darabilzu buruan?

Ivan Santxo: Jendeak ondo pasatzea. Denetariko eta denontzako musika izango dugu. Jendea gerturatu dadila dantza egitera, dantzatu, ondo pasa eta inauterietaz gozatzera.

Bi saio izango dira; arratsaldean lehena, gauean bigarrena. Dj bera, baina bi emanaldi desberdin?

I. S. Arratsaldean printzipioz, haur eta gaztetxoentzako eta helduentzako musika jarri asmo dugu. Helduagoentzako musika mugituagoa gauean. Diskoteka antzekoa izango dugu, denok ondo pasatzeko.

Dominika Agergarai, gogoan

Joan den larunbatean Usurbilgo Sutegin Nafartarrak kultur taldeak antolaturiko hitzordu garrantzitsua zegoen. Zuberoako Dominika, dela gutxi zendu zena, omentzeko parada zegoen. Usurbil eta Urdiñarbeko herrien arteko 20 urteko harremana ez zen ahuntzaren gauerdiko eztula. Urte luzez bizkar hezurra suertatu zena, ustekabean itzali zen urrian, baina bere argindarrak jarraipena izateko omenaldi bero eta sutua izan zuen leporaino beterik zegoen aretoan. Lehenik, maskaradako xorrotzak gogoratuaz, Pello Zubiria eta Joseba Tapia aritu ziren. Usurbilgo kontuak aipatu zituzten.

Bestalde, Bordaxarren laukoak ahots gozoz abesturiko kantuak eskaini zituen. Ondoren, Iñaki Agirresarobek eta Kerman Rekondok bi herrien arteko harremana gogoratzeko bertso bana abestu zituzten.

*Artzain prestua ta langilea
gainera amesgarria,
hire ezpainetan heraman beti
alaitasunez irria,
Urdiñarbe ta Usurbilekin
mantenduaz lokarria,
abesti franko izango dituk
beti denen euskarria
zabalduaz azkorria.*

*Zure bizitza eman zenion
bihotzez Zuberoari,
bere dituen nekazaritza
kultur eta kirolari,
lokarri batez korapilatuz
gure Euskal Herriari,
ta orain heldu behar diogu
zuk utzitako lanari,
zure irriak jarraitu dezan
Euskal Herrian kantari.*

Jarraian Usurbilgo dantzariak, Mixel Etxekopare eta Bedaxagar aritu ziren. Omenaldi hunkigarria, beroa eta xaloa gertatu zen. Xiberotarren izenean Jargo Etxeberri aritu zen hizketan eta eskerrik beroenak jaso zituzten bildutakoek.

Kronika, argazkiak: Iñaki Agirresarobe.



Usurbilgo Dantza Taldea, Mixel Etxekopare & Bedaxagar, Pello Zubiria eta Joseba Tapia, hurrenez hurren.

Artzeren ‘unibertsoa’, San Telmo museoan ikusgai

Kanpai-hotsak urrunean, haizearen zurrumbiloa, hitzak hegan... Modu iradokitzailean abiatzen da Joxan Artzeren inguruko bideo instalazioa. Eta giro horretan jarraituko du amaierara arte. Konturatu orduko, bisitariak Joxan Artzeren unibertsoan murgilduta ikusiko du bere burua.

Alberto Lizarralde eta Carlos Rodriguezek zuzendu dute erakusketa, San Telmo museoak, EHuko Mikel Laboa katedrak eta Morgancreak lagunduta. Instalazioa, Joxan Artzeren ibilbidean egindako bidaia bat da. 2013an bi liburu plazaratu zituen Joxan Artzek Elkar argitaletxearekin. Azken lagin hauek ordea ez dute isla handirik erakusketa honetan. Oraindik orain, poetak idazten jarraitzen duen seinale gisa edo. Akaso hori da, jartzekotan, jarri daitekeen eragozpen bakarra.

Iradokitzailea

Luze zabal hitz egin daiteke Joxan Artzeren unibertso poetikoaz. Bideo instalazio honetan ordea, iradokizunetan dago mezuaren indarra. Beraz, ahaztu ohiko erakusketaren mekanika. Bideo-instalazio honek bestelako kodeak jarraitzen ditu. Lau pantaila, pareta eta zorua ari dira solasean. Artze ari du ezker eskuin, Artze ari du goian



Otsailaren 14ra arte zabalik izango da erakusketa, Donostiako San Telmon.

BIDEO-INSTALAZIOA

“Ikimilikiliklik JA Artzeren unibertsoa’ erakusketan trumilka datoz hitzak, abestiak, txalaparta doinuak eta txorien hegaldiak”

behean. Era honetan, poetaren irudi poliedrikoa agertuko zaio begien aurrean bisitariari. Artzeren unibertsoaren erakusgarri.

‘Hartzabal’ garaia

Hartzabal, Hartzut, JA Artze... Garaia arabera, aldaratearen arabera, izen edota izengoiti ezberdinak baliatu ditu poetak. 2013an plazaratu zituen bi liburuak Joxan Artze bezala sinaturik zetozen.

Poetaren soinu banda

Txalaparta ezinbesteko doinua izan da Artzeren ibilbidean. Eta txorien kantua. Ziurrenik, horiek dira bere soinu bandaren ikur nagusienak. *Ikimilikiliklik JA Artzeren unibertsoa* erakusketan, trumilka datoz hitzak, txalaparta doinuak eta txorien hegaldiak.

Laboaren itzala

Soinu bandaz ari garela, Mikel Laboaren kantuek ere pisu handia dute erakusketan. Azken batean, Laboaren kantuek Artzerenak beste dira. Eta erakusketan, jakina, Laboaren itzala ageri da. *Maite ditut maite* abestiaren doinuarekin abiatzen da, hain zuzen, ‘Hartzabal’ izeneko atala. Erakusketaren hasierako atal-

txo honetan, Usurbilgo argazkiak, 60 eta 70etako gertaerak eta Ez Dok Amairuko irudiak uztartzen dira.

Garaiko grabazioei esker, *Ikimilikiliklik* bidekidekariaren audio zatiak entzuteko parada du bisitariak. Eta hitzen eta irudien bitartez, 1975-1978 urteetan egindako ikuskizun haietara garamatza erakusketak. Eta konturatu gara aitzindaria izan zela idatzitako paperera eramaten, eta baita idatzitako plazaratzen ere. “Lanalalanana” bucle-aren bitartez ohartuko gara performance delakoak egiten ere aurrenakoak izan zirela Artze anaiak (eta konpainia). Orain hain ohikoa zaigun definizioa – performance delakoa – erabiltzen ez zen garaian. Pentsa.

Collage ikusgarria

Hitz-jokoak, hitz loturak, maiz ageri dira poetaren ibilbidean. Eta bideo instalazio honen egileek ederki asmatu dute horretan. Hitzak txirikordatuz, San Telmoko pantailetan collage ikusgarriak osatuz.

Hartzut

Hartzabal atalaren ondoren dator *Hartzut* garaia. Ordukoak dira *Mundua gizonarentzat eginda da, baina ez gizona munduarentzat* (1998) liburua eta *Oihana ahunka* grabazioa eta ikuskizuna.

Zumeta ere, San Telmo museoan ikusgai

Orain 50 urte aurkeztu zen Gaur taldea, erakusketa bat eginez eta manifestu bat kaleratuz. Haien lanak berriro batu eta ikusgai jarri dituzte oraintsu Donostiako San Telmo museoan.

Baita Madrilen ere

Horretaz gain, ostegun honetan Zumetaren erakusketa bat zabalduko dute Madrilgo Luis Burgos galerian (Villalar Kalea, 5. 28001 Madril).

Artze, goian behean

Artzeren ibilbidean errepikatzen hasi eta pensatzen hasi litzateke *Hegoak ebaki banizkio* poemaz ez akordatzea. Ageri da erakusketan, ordea. Nola ez ba. Hau ere, modu iradokitzailean. Joxan Artze alora begira ageri da. Eta poema hori bera du ahotan. Ez gaztetako Joxanen ahotsean. Gaurko Joxanen ahotsean baik. Hitzez eta irudiz. Erakus-

keta honetarako propio egindako grabazioa dela ematen du. Eta Artzeren bozak harrapatuta, poemarekin batera datozen hitzekin, irudiekin eta doinuekin bustitzen joango da ikuslea. Xirimir betean. Artze ari du San Telmon. Eta Mikel Laboa, eta Ez dok Amairu, eta Jexux anaia, eta garai bateko eta egungo Usurbil. Artze ari du San Telmon. Artze, goian behean.

Beste bi astez ikusgai

Erakusketa otsailaren 14ra arte egongo da ikusgai San Telmo Museoaren bigarren solairuan, Laborategi Aretoan. Oraindik agertu ez bazarete, bi aste dituzue aurretik. Asteartetik igandera irekitzen dute museo, 10:00etatik 20:00etara. Bideo-instalazioak ordu erdiko iraupena du eta bucle-an dago ipinia. Sarrera doan da.

Garazi Basurto Korta, Irisasi BTT probaren atarian: “Osaba eta lehengusuarekin aterako naiz”

Familiatik datorkio txirindularitza zaletasuna. Txapelketak telebistaz segitzen zituen lehen. Denboraldi luzez futbolearen aritu ostean, azken urte honetan hasi du kirol jardueraren honetako ibilbidea, 10 urte zituen bizikleta batekin. “Hasi naiz eta hor segitzen dut”, hala dio Garazi Basurto Kortak. Usurbildarrak estreinakoz parte hartuko du, iganderako antolatutako Irisasi BTT “Hotzak akabatzen” proban. Abiatzeko gogotsu dago, eta hasitako bideari segida emateko prest.



“Aurten ibilbide motza egin nahi duenak, ez du zailtasun handirik. Oso polita da”, hala azaldu digu Garazik.

NOAUA! Kirol jardueraren honetan hasi berria zara?

Garazi Basurto Korta: Duela urtebete hasi nintzen. Lehengusuak urtero gelditzen ziren bizikletan ibiltzeko. Inbidia eman zidaten, proba moduan hasi eta gustatu zitzaidan. Orduetik asteen behin saiatzen naiz joaten, normalean Andatzara.

Zer moduzko hasiera izan duzu?

Laupabost urte baziren bizikleta ukitu ere egin ez nuela. Hasieran Andatza igotzea kosta zitzaidan. Baina igotzea lortu nuenez, gustura hartu eta hala segi nuen.

Igandeko probarako zirkuitua ezagutuko duzu honenbestez.

Lehengusu batzuk bai, joan ziren antolatzaileekin eta azaldu digute ibilbidea nolako den. Zirkuitu bera egitera joan nintzen, bideak nolakoak diren ikusteko.

Pistak zer egoeratan bilatu dituzu?

Bada zuhaitzak ateratzen aritu diren bide zati bat, hor lokatza dago. Baina halere eremu laua da eta bertatik pasa zaitezke. Aldapa izan bazen agian ez. Gero pinutegitik jaistean, agian lokatza egongo da. Baina eroriz gero ez du garrantzirik, lurra biguna dago eta.

Egingo duzun ibilbideak zer berezitasun ditu, zer du erakargarritik zaletuontzat?

GARAZI BASURTO

“Duela urtebete hasi nintzen. Lehengusuak urtero gelditzen ziren bizikletan ibiltzeko. Inbidia eman zidaten, proba moduan hasi eta gustatu zitzaidan. Orduetik asteen behin saiatzen naiz joaten, normalean Andatzara”

Ibilbide motza egingo dut. Motza ez da zaila, denok egiteko modukoa eta polita da. Bidezidorrak ditu, jaitziera pinu artetik egiten da. Ez zoaz beti pistatik, betiko bidea egiten, desberdina da. Ibilbide luzea ere gogoragoa baina polita da baita ere.

Proba hau baldintza gogorretan ospatzeko antolatua da. Baldintza gogorren zaletuak zarete baita, kirol ekimenotan parte hartu ohi duzuenak?

Lokatza pixka bat baldin badago ez dit axola. Kontua da, gero gogoragoa egiten dela baldintza horiekin bizikleta gainean aritzea. Berez egunotarako nahiko eguraldi ona iragarri dute. Gero kontua da zenbat jende pasatzen den zure aurretik eta horrek uzten duen lokatza.

Norbera eta bizikleta prestatu behar iganderako.

Jendea bai prestatzen dela gustura, denbora ona egiteko. Ni proba bukatzera noa. Andatzara igotzen ari naiz bideetara ohitzeko, baina espresuki ez naiz asko prestatzen ari.

Aurrez izena eman duen neska bakarrenetarikoa zara. Emakumeen parte hartzea zergatik da hain txikia?

Bizikletan errepidean ibiltzen diren neskak ezagutzen ditut, baina mendian ibiltzen direnak gutxiago dira. Ez diete atentzioa ematen agian. Egia da baita, jendeak ere azken egunera arte itxaroten duela izen emateko, batez ere zer nolako eguraldia izango den ikusi arte. Beste urteetan neskak atera izan dira, egunotan animatuko dira gehiago. Ni osaba eta lehengusuarekin aterako naiz.

Probarako izena ematen duenak zer aurkituko du igandean?

Aurreko urteetan ez dut parte hartu izan. Esan dutenagatik nahiko gogorra izan da. Baina aurten ibilbide motza egin nahi duenak, ez du zailtasun handirik. Oso polita da. Lehengo aldapa igo, goraino igo eta gero dena aldapa behera da. Jendea errazago animatuko da, batez ere ni bezalakoak; asko ibili gabe, gustura aritzen direnak. Horiek animatu beharko lukete.

Ugaritzen ari dira mendiko probak ere?

Geroz eta gehiago daude. Pertsonalki gustukoagoak ditut mendi-koak errepidekoak baino. Errepidekoak aspergarriagoak iruditzen zaizkit. Mendian pista batetik zoaz, gero baso tartetik sartzen zara. Gogoragoa da baina politagoa. Ibilgailu tartetean baino lasaia igo ibiltzen naiz. Nekatuz gero erritmoa mantsotu eta ez da ezer pasatzen. Bestela buelta eman eta kito.

Igandeko saioaren ostean, zer asmo duzu?

laz bi probetan parte hartu nuen; apirila aldera Lasartekoan parte hartu nuen, Andatzan izan zen baita. Beste batean Goizuetara joan nintzen. Bizikletan hasi berria nintzen eta oso nekatuta bukatzen nuen. Irisasiko probako ibilbidea egin nuenean ordea gustura iritsi nintzen etxera, ez nintzen nekatuta iritsi aurrekoetan bezala. Entrenatzen segiko dut, eta antolatzen diren proben arabera, parte hartzen jarraituko dut.

Izen ematea zabalik oraindik

- Eguna: urtarrilak 31, igandea.
- Ordua: 09:30.
- Ibilbideak: 30 eta 40 kilometro-tako ibilbide bana aukeran
- Irteera/helmuga: frontoia.
- Zerbitzuak:
 - Ibilbidean zehar: janaria, edari beroa eta asistentzia.
 - Helmugan: hamaiketakoak, dutxak Oiardo Kiroldegian eta bizikletak garbitzeko mangerak.
- Parte hartzaileentzat: kirolerako kamiseta opari eta zozketa opari ugari.
- Izen ematea: kirolprobak.com atarian, urtarrilaren 2tik 29ra. 15 euro federatuek, 18 euro federatu gabek. Proba egunean (09:15ak baino lehen), 22 euro denentzat.
- Informazio gehiago: andatzamendizale.info
- Antolatzailea: Andatza BTT.

Klub Arteko Pilota Txapelketaren finala igande honetan jokatuko da

Pagazpe elkarte larunbatean Amezketan jokatzea zen Euskal Herriko Klub Arteko Pilota Txapelketako finala igande honetara, urtarrilaren 31ra atzeratzea erabaki dute antolatzaileek. "Amezketako Larrunarri pilotalekua ez zegoen partidak jokatze moduan, bertan zegoen hezetasan handiaren ondorioz. Amezketako plazara jende asko gerturatu den arren jaialdiaz gozatzera, frontoiaren egoera ikusita ez jokatzea erabaki da", ohartarazi dute antolatzaileek.



Igande honetan, 17:00etatik aurrera jokatuko da Usurbilgo Pagazpe eta Tolosako Aurrera Saiazaren arteko finala, Amezketako Larrunarrin. Banakako norgehiagokan Xabier Santxo arituko da.

Finala jokatzeke eguna pilota elkarrekin batera erabaki dute. "Finala jokatzekeoak ziren pilotariei utzi zaie noiz jokatu erabakitzeke ardura, eta azkenean, Euskal Herriko Klub Arteko 2. Txapelketa Nazionalaren finalak urtarrilaren 31n jokatuko dira, arratsaldeko 17:00etan, Amezketako Larrunarri pilotalekuan", adierazi dute.

Pilota partidak Aginagan

Urtarrilak 28 osteguna, 19:30h

Udaberri txapelketa:

Paleta goma 1. maila:

PAGAZPE 2-LOIOLATARRA

(Xabier Errasti - Aritz Urdanpilleta)

Pilota partidak Usurbilen

Urtarrilak 29 ostirala, 20:00h

Udaberri txapelketa:

Kadeteak 3. maila:

PAGAZPE-ANTIGUA

(Peru Aranburu - Alain Ramos)

Kadeteak 1. maila:

PAGAZPE - TOLOSA 5

(Jon Zumeta - Aimar Iruretagoiena)

Euskal Herriko txapelketa:

Eskuz banaka: PAGAZPE - BERGARA

(Ander Quina)

"Hezetasanaren erruz, frontoia ez zegoen ondo eta horregatik atzeratu dute finala. Igande honetan jokatuko da"

Aurkaria, Tolosako Aurrera Saiaz
Tolosako Aurrera Saiazekin lehia-

Eskubalo partidak

Urtarrilak 30, larunbata

■ 10:00 Infantil neska Gipuzkoako Txapelketa:

Udarregi A Usurbil-Ereintza C

Urtarrilak 31, igandea

■ 09:00 Infantil mutilak, Gipuzkoako Selektzioaren kontzentrazioa.

■ 10:45 Senior neska, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Aiala Zarautz K.E.

■ 12:00 Alebin neska, Errendimendua, Gipuzkoako Txapelketa: pres-takuntza saioa.

Oharra: behin behineko ordutegiak, neurketa gehiago egon daitezke. Jubenil neska, kadete mutil eta kadete neskek promozio sektoreak jokatuko dituzte asteburuan.

tuko da Usurbilgo Pagazpe Elkarte. Aldaketarik ez bada, honatx finalan jokatuko diren partidak eta neurketotan parte hartuko duten bi taldeotako pilotarien berri:

■ 4 t'erdian: Elola-Quina

■ Banaka: Urretabizkaia-Santxo

■ Binakako neurketa:

E. Labaka-Arratibel

Urbieta-Gorrotxategi

Futbola Haranen

Urtarrilak 30, larunbata

■ 09:00 Alebin neska:

lagun artekoa.

■ 10:00 Kadete mutilak:

Usurbil F.T.-Amara Berri K.E. "B"

■ 12:00 Infantil mutilak:

Usurbil F.T.-Ostadar S.K.T. "A"

■ 15:30 Preferente mailako taldea:

Usurbil F.T.-Soraluze C.F.



Larunbat honetan, futbola Haranen.

Epele-Ugaldetxo mendi irteera

Otsailaren 14rako antolatu du Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak, 2016ko lehen txangoa; Epele-Ugaldetxo artekoa. Informazio gehiago, andatzamendizale.info atarian.

Usurbil K.Eren errifa zozketa

2.181 izan da errifa saritua. Zenbakiaren jabeari 2 lagunentzako afaria tokatu zaio Santueneko Aialde-Berri sagardotegian.

Selektzioarekin

Usurbil K.E.-ko jokalariorik deitu dituzte selektzioarako. Udarregi A taldetik, Julen Lejardi, Manex Irazabal eta Jon Mikel Elexpe.

Udarregi B taldetik, Eneko Furundarena, Xabi Olazabal, Amets Aburruza, Harri Bruño eta Mario Perez.

Yoga ikastaroa

Zabalik jarraitzen du yoga saioetan izen emateko epeak. Saioak asteartean 17:30ean, asteazketan 18:30etan eta ostegunetan, 10:00etan izaten dira, Bake Epategi atzeko lokalean. Argibide gehiago: Katia (636 71 15 14).

Ikastaroak

Kiroldegian

Zoru pelbikoaren gimnasia, aerobik-step, cycling, igeriketa entrenamendua, haurdunei zuzenduriko igeriketa ikastaroak... Izen emateko edo argibide gehiagorako:

943 372 498 / kirola@usurbil.eus

Web: kirolak.buruntzaldea.eus

www.noaua.eus

USURBILGO ATARIA

Kima
MASAJE LEKUA
·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

ETXEBIZITZA

Salgai

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, egongela, sukalde, komuna, aluminiozko leihoak, berogailua etxe guztian eta hiriko gasa. 15 metro koadroko baju bat ere bai. 95.000 euro. 659 460 979

Askatasuna plaza aldera ematen duen etxebizitza eta garaje marra salgai Kaxkoan. 3. solairua. 80 metro koadro, 3 logela, 2 komun, sukalde, jantokia, egongela eta 24 metro koadro trasteroa. 269.000. 943 916 834.

Pisu bat salgai. 90 metro karratu. 3 logela, 2 bainugela, jan-egongela eta sukalde jantokia aparte duela. 605 707 642.

Atikoa Zubietan, 110m2 erabilgarri. 2008an guztiz berritua, teiltuaren estruktura ere. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2-ko egongela. Haize egokitua. 225.000. 669781959 Julen

2 gela, komuna, sukalde eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukalde. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Usurbilen edo inguruan eraikigarria den lur eremua erosiko nuke. 636393237

Etxe salgai (Kutxa gainean). 3 logela, egongela, sukalde, komuna, trastelekua. Dena kanpoaldera. 607 572 106

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukalde. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiagan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. 637 309 209.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukalde egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi: dugu; orain, 36 milioi pezetatan

Etxe salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Alokairuan

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu bat alokairuan Puntapax-en. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Duplex modukoa, oso oso berezi jarrita. 627 496 740. Carlos.

Pisu bat alokairuan Artzabalen. Behoko solairuan, terrazarekin eta oso egoera onean. Tel. 655 708 276.

Pisu baten bila nabil, altzariekin eta gehienez 550 euro. 661 378 340

Pixu bat Kaxkoan, 3 gela, egongela, sukalde eta komun bat. Bi balkoi. 602503855 (17:00etatik aurrera).

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 702 264 / 686 143 786

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

2 laguntzako alokairuko pisu bila. Behoko solairua eta terrazaduna bada hobe. 610 73 59 64.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin.

664885737

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. 682 214 506.

Emakume bat gela baten bila dabil partekatzeko 17:30-18:30 deitu (Marisol). 674463942

MOTORRA

Salmenta, garajeak

Kale Nagusian, garaje itxi handi bat alokatzen da. 943 361 235.

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Baju komertzial bat salgai Erdiko kalean. 62 metro koadro, solairuarekin batekin. 600 369 013 / 943 371 827

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Errekaxiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra uzteko izango litzateke. 645720571

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro koadokoak Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Antxetan, neska bat behar dugu asteburuetan zerbitzatzeko. Tel.

943 370344

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Erizain laguntzaile nazionala eskaintzen da. Tituluekin eta esperientziarekin edozein lanetan. Batez ere pertsona helduak zaintzen. Tel. 622 925 562.

Emakume euskalduna eskaintzen da, ume txikiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsalde, abendutik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567.

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.

Emakume bat eskaintzen da, goizez, 2 edo 3 orduz etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 620 625 823.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel. 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekuetan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Mutil gazte bat LH eta DBH-ko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Tel. 617 916 242. (Oinatz)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketa lanak egiten, jatetxeren batean harraskako garbiketarako egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan aritzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Lan bila nabil. Interna moduan eta umeak zaintzen. Tel. 645 530 490

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketarako. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak

ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel. 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Latina, frantsesa, ingelesa, euskara klaseak ematen dira, etxean. Ekonomikoa. 600766068

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketarako, plantatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezinduek edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketarako egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papela. 618 889 530.



Zorionak Ana!
Zure lankideen partez, urte borobila izan! Muxu handi bat.



Zorionak Inge!!
Urtarrilaren 26an, 8 urte egin dituzu. Muxu asko asko familia osoaren partez.



Zorionak Julen!!
Otsailaren 1ean zure urtebetetzea! Egun polit bat pasa. Aita, ama, Noa eta Aneren partetik.

Heriotzak

María Adoración Campos Lozano
87 urterekin hil zen urtarrilaren 24an Usurbilen



Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketari... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Mutil gazte bat eskaintzen da, ingelesa, frantsesa, latina, filosofia emateko. Merkea. 600 766 068. Jokin

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile titulua-rekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen prest. Interna bezala ere. Edozein ordutegi. 608299579

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezala ere bai. Edozein ordutegi. Esperientziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketari lan egingo nuke. Interna bezala ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta paperekin. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutza, sukaldaritzan, garbiketari... 604148284.

Lan bila nabil. Esperientzia sukalde laguntzaile bezala, zerbitzari bezala, garbiketari, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketari lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilara ere. Lan prebentzioko ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperientziarekin, eta paperekin. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Xiomara. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu internan joateko moduan. Klinika laguntzaile titulua-rekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketari lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 631 333 251

Neska, garbiketari lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 653 620 770

Neska, garbiketari lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno edo orduka. Gauak etxean edo ospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziarekin. 638 602 597.

Neska euskaldun batekin lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gazteekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka...Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketari eta ostalaritzan) 698 322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketari industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketari lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrik emateko prest. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi

maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezala joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile titulua-rekin. 619511789 / 943 760418.

Paperak ongi dituen mutil bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, etxeko garbitzen, sukaldeko laguntzaile moduan, harraskan garbitzen, peoi... 648 761 874.

Orduka lana egin nahi duen neska euskaldun bat naiz, eta garbiketari edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 635 715 424 Julia.

BESTELAKOAK

Egurrairekin sua egiteko ekonomika berria daukagu salgai. 637974994

Borda baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Gehienez 10.000 metro koadroko terrenoarekin. 608 703 669

Urtebeteko ume baten zapata bat galdu genuen abenduaren 4an. Granate-berenjena kolorekoa, hosto berde pare batekin.

See Kai Run markakoa, 5 talla. 639 469 577.

Legurretako babarruna salgai. 10 eurotan kilo. 657 714 355

Ume txaketa bat galdu da (marroia) Askatasuna plaza-Atxegalde bitartean 943110954

8-10 urteko haur baten tamainakoa den sudadera gorri bat galdu dugu. Letra grabatu beltzak ditu. 676 82 33 11

Babarrun beltza eta babarrun motz zuria salgai. Usurbilgo erriban eta botikarik gabe ekoiztutakoa. 2015 uzt. Tel: 65 777 01 31 (WhatsApp).

Memoria txartela galdu da argazki kamerarena, aurkitu baduzu eraman NOAUA!ra mesedez.

Bi "artzi txakur" oparitzen ditut. Bata lau urtekoa, etxea zaintzeko eta bere kumea, hiru hilabete eta erdikoa. Tel. 660 093 071.

Giltza batzuk agertu dira Bizkartzon. Galdu dituenak pasa NOAUA!tik, bertan dituenak eta.

Giltza batzuk galdu dira, erdigunean. NOAUA!n edo Udaltzaingoan uztea eskertuko nuke.

Bosch markako garbigailu bat salgai. Urte bete pasatxo dauka. Berri berria dago. Tel. 943 363 201.

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Hiru plazako eta bi plazako sofak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzeekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@hotmail.es

Hemengo urra erosiko nuke. Deitu 634 409 888.

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. 688 888 176. Pablo.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Asteleheneetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Oa botika.....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneke Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaui Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 28 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 29 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 30 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 31 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Astelehena 01 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteartea 02 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteazkena 03 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Urtarrilak 28 - otsailak 07

Osteguna 04 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 05 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 06 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 07 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE Elkano 9 Behea, Hernani. 943 55 20 87 22:00 - 09:00

<https://www.cofgipuzkoa.com/>

Agenda urtarrila

29 ostirala

- **Ainhua Intxaurrendietaren hitzaldia** 18:30ean Potxoenean.
- **Euskal presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea** 20:00etan Mikel Laboa plazan.

30 larunbata

- **Energia Azoka** 10:00etan Mikel Laboa plazan.
- **Kantu-jira** 19:00etan Mikel Laboa plazatik.

31 igandea

- **Hotzak Akabatzen BTT proba** 9:30ean irteera frontoitik.
- **EHko Mus Txapelketaren kanporaketa** 16:30ean Aitzaga Elkartearen.

Euskal Herriko 8. Mus Txapelketako kanporaketa Aitzaga elkartearen

Udalerri mailako kanporaketak jokatuko dira asteotan, eta finala, martxoaren 5ean Urdiñarben. Usurbilgoa igandean, urtarrilaren 31n, 16:30ean hasita Aitzaga Elkartearen. Ordu erdi lehenago zabalduko dute, karta jokoan aritzeko izen ematea. Bikoteko, 20 euro ordaindu beharko dira. Antolatzaileek, izen emate kopuruaren arabera erabakiko dute hain zuzen, zenbat bikote sailkatu ahaliko diren Gipuzkoa mailako finalera.

Igande honetan, Aitzagan

- Urtarrilak 31: Usurbilgo kanporaketa, 16:30etan hasita Aitzaga Elkartearen (izen ematea 20 euro bikoteko, 16:00-16:30 artean). Usurbilgo kanporaketako sariak: 2 laguntzako afariak Saizar eta Aginaga sagardotegietan, Bruño etxeko txangurro eta muskuiluak.
- Otsailak 20: 7 herrialdeetako finalak. Sariak: txapelak, garai ikurrak, asteburuko egonaldiak, bazkari eta afariak...
- Martxoak 5: final nazionala Urdiñarben (Zuberoa).

Energia Azoka

Larunbat honetan, goizeko 10:00etatik aurrera Mikel Laboa plazan, Usurbilgo Udala eta Lanbide Eskolak antolatuta.



Bikote txapeldunak 3.000 euro eta Kariberako bidaia irabaziko ditu.

- Txapeldunak: txapela, garai ikurra, 3.000 euro eta Karibera bidaia dena barne, 4 laguntzat.
 - Txapeldun ordeak: garai ikurra, 1.500 euro eta bi laguntzako bidaia Kanariar Uharteetara.
 - 3. bikote sailkatua: 750 euro eta asteburuko egonaldia 4 laguntzat.
 - 4. bikote sailkatua: 500 euro eta euskaraz ikasteko urte osorako 2 matrikula.
 - 5-16 postu arteko bikote sailkatuentzat: sari txikiagoak.
- Antolatzailea: Euskal Herriko Mus Federazioa.
Informazio gehiago: ehmus.eus

Kantu-jira

Larunbatean, iluntzeko 19:00etan abiatuko dira Mikel Laboa plazatik. Kantuz girotuko dute herri erdigunea, afal ordura arte.

Datozenak

EHBilduk batzarra deitu du otsailaren 3rako

Hauteskundeen balorazioa egin eta inbestidura saioaz eta hurrengo hila-beteetako lan lerroez hitz egiteko herri batzarra deitu du Usurbilgo EHBilduk. Otsailaren 3an asteazkena, 19:00etan hasita Potxoenean. "EHBildu guztion hitzekin, proiektuekin eta hausnarketekin egin nahi dugulako garrantzitsua iruditzen zaigu denon artean egitea hauteskundeen balorazioa, inbestidura berriaren aurrean hartu beharreko jarrera erabakitzea eta hemendik aurrerako lan lerroak zeintzuk izan behar duten hitz egitea", Usurbilgo EHBildutik aditzera eman dutenez.

Emakumeentzako ahalduntze ikastaro berri bat

"Busti feminismoan: atzo eta gaurko proposamen feministetan sakontzen", emakumeentzako ahalduntze ikastaro berria antolatu du Usurbilgo Udalak.

- Egunak: Otsailak 11, 18 eta 25, martxoak 3 eta 10, apirilak 7, 14, 21, 28.
- Ostegunetan, Potxoenean. 17:30-19:30.
- Dinamizatzaileak: Miren Aranguren eta Edurne Epelde (Emagin).
- Izen ematea, doan: Usurbilgo Udaleko parekidetasun sailean, 943 377110/parekidetasuna@usurbil.eus

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

ELORZA
OBRAK ETA
ERREFORMAK S.L.
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

AGINAGAKO Herri Eskola

Eskola bizirik, Agiña bizirik!



•2-12 urte bitartekoentzat euskarazko irakaskuntza eskaintza zabala doan: ingelesa 3 urtetik aurrera, musika, internet gela guztietan, heziketa bereziko irakasle espezializatuen zerbitzua...

•Jantoki zerbitzua.

•Eskola-txikien artean koordinatutako proiektu konstruktibismoan oinarrituz.

•Eskola-txikien arteko elkarbizitza: irteerak, antzerkiak, kirola...

•Eskola orduraz kanpoko kirola.

•Goizeko gela (8:00-9:30)

Izena emateko epea: **urtarrilaren 25etik**
otsailaren 5era

9:30etik-16:30tara



Usurbilgo Udala

AGINAGA
HERRI ESKOLA
Usurbil

baikara
Gipuzkoako Ikasle
Gurasoen Federazioa

AGINAGAKO HERRI IKASTETXEA

Erriberako Kalea 7

20170 AGINAGA

Tel. 943 372044
Faxa: 943 372044

012261aa@hezkuntza.net



Udarregi

IKASTOLA

Udarregi ikastolak zera eskeintzen dizue:

- 0 urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua. Konfiantzaren Pedagogia egitasmo pedagogikoa garatzen dugu 3-6 urteko haurren geletan.
- Heziketa euskalduna: euskaraz ikasi eta bizi, eta Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildua dagoena.
- Balore eta jarreraren lanketa, heziketaren ardatz gisa.
- Irakaskutza Eleanitza: D eredua; ingelesa 4 urtetik aurrera; gaztelera Lehen Hezkuntzaren 3. mailatik aurrera eta frantsesa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- Orientazio Departamendua: tutoretza eta banakako orientazioa. Orientazioa gurasoentzat.
- Heziketa Behar Bereziak dituztenentzat Laguntza Gela.
- Hizkuntzetarako irakasle espezialistak.
- Informazio eta Komunikazio-Teknologiak: Informatika, Internet eta Ikus-entzunezkoak.
- Garraioa auzo guztietara.
- Jangela: Bertan sukaldatutako menuak (adin guztietarako) eskaintzen ditugu, herriko eta inguruko ekoizleen elikagaiak zerbitzatzuz bazkaltiarrentzat. Honela, herriko ekoizleen produktuen kontsumoa sustatzearekin batera, elikadura arduratsu eta osasuntsuaren baloreak indartzen ditugu.
- Ikasleen Goizeko Zaintza: 08:00etatik 09:00etara.
- Eskolaz kanpoko jarduerak: kirolak, dantza, xake.

48 urteko esperientzia Usurbilen.

Matrikulatzeko epea (3 urtetik-16 urtera)

Urtarrilaren 25etik otsailaren 5era (biak barne)

HAUR HEZKUNTZA: 3 - 6
LEHEN HEZKUNTZA: 6 - 12
DBH: 12 - 16



943 361 216

Udarregi Ikastola

Gernika ibilbidea. USURBIL

www.udarregi.eus